

CAMILO LOTEROK PARTIDA GUZTIAK IRABAZI ZITUEN ARRANO ELKARTEKO XXVI. XAKE TXAPELKETAN



2025eko irailaren 1etik 5era jokatu zen Arrano Elkarteko XXVI. Xake Txapelketa. Bi orduko partidak izan ziren, bost txandatan.

20 jokalarik jokalarik parte hartu zuten, iaz baino 9 jokalaria gehiago: Mikel Gureako 10, Arrano Elkarteko 3, Paz de Zigandako 2, Oberenako 2, Mikel Deunako bat, Orvinako bat eta Berriozarko bat.

Orvinako Mario Antoñanzas Fernández, Mikel Gureako Camilo Lotero eta Mikel Deunako Henry Díaz ziren faborito nagusiak. Baziren beste jokalaria indartsuak baina partida guztiak jokatzeko modurik ez zuten.

Txapelketa hau motza da eta hutsak zuzentzeko aukerarik ia ez dago. Horrexegatik, Henry Díaz jokoz kanpo geratu zen, bigarren txandan Abel Otazuren aurka galdu ondoren.

Laugarren txandan erabaki zen txapelketa Mario Antoñanzas eta Camilo Lotero kolonbiarraren arteko partidari. Ordura arte nahiko joko distiratsua eta eraginkorra erakutsia zuen Mario Antoñanzasek, baina partida horretan Camilo Lotero nagusitu zen.

Mikel Gureako Imanol Migueltorena izan zen 14 urtez azpikoen artean onena eta horrexegatik trofeoa irabazi zuen. Laugarren izan zen, Camilo Lotero, Henry Díaz eta Mario Antoñanzasen atzetik.

Txapelketan azkena bukatu zuen partida izan zen ziur aski ikusgarriena. Postu ona lortzea besterik ez zegoen jokoan, baina Roberto Aranaren eraso indartsua eta Iñigo Eliaren defentsa adoretua aurrez aurre ibili ziren. Azkenean, Roberto Aranak irabazi eta bosgarren postua eskuratu zuen.

AZKENEKO SAILKAPENA

- 1) Camilo Lotero (2.093) – 5 puntu.**
- 2) Wladislau Henry Díaz Mollenedo (1.977) – 4 puntu.**
- 3) Mario Antoñanzas Fernández (2.190) – 3 puntu.**
- 4) Imanol Migeltorena Tellechea (1.603) – 3 puntu.**
- 5) Roberto Arana Oloron (1.861) – 3 puntu.
- 6) Joseba Otano Villanueva (1.734) – 3 puntu.
- 7) Abel Otazu Casanes (1.844) – 2'5 puntu.
- 8) Kaiet Viana Aznar (1.631) – 2'5 puntu.
- 9) Adrian Oroz Carrasco (2.173) – 2'5 puntu.
- 10) Iñigo Gurbindo Lizaur (1.548) – 2'5 puntu.
- 11) Mikel Razkin Fraile (1.755) – 2'5 puntu.
- 12) Iñigo Elía Aldave (1.721) – 2 puntu.
- 13) José Antonio Sánchez Lorente (1.560) – 2 puntu.
- 14) Enrique Nieto Larrondo (1.490) – 1'5 puntu.
- 15) Lucas Octavian Berteia Sofrone (1.493) – 1'5 puntu.
- 16) Iker Fernández Cobos (1.957) – 1'5 puntu.
- 17) Xabier Abaurrea San Juan (1.586) – Puntu bat.
- 18) Manuel López Medina (1.633) – Puntu bat.
- 19) Juan Alonso Irujo (elarik gabe) – Puntu bat.
- 20) Daniel Aguinaga Garijo (1.643) – 0'5 puntu.

2025-09-05.

ARRANO ELKARTEA XAKE TALDEA.

Ordezkaría: Joseba Otano Villanueva. Euskal Herriko Nortasun Agiria: S6973074A. Helbidea: Antsoingo errepidea, 13 – 3 ezker (Iruñea).